



## Bapatean 2019, bertsozaleen eskura

Urteko bertsoaldien bilduma sarean jarri dugu aurten: liburua, bertsoaldien audioak eta transkripzioak bertsoaritzaren datu-basean daude.

Pandemiak gauza asko Internet sarean egitera behartu gaitu, eta horrek are gehiago azkartu ditu digitalera egin beharreko urratsak. Hala gertatu da Bapatean 2019 bildumarekin: urtero kaleratzen dugun ekoizpena aurtengoan BDB bertsoaritzaren datu-basean jarri dugu eskuragai.

Esan gabe doa, ekoizpena diskora eta paperera ez ekartzeak eta haien bidalketa ez egiteak abantailak dakartzala ingurugiroari eta alor ekonomikoari dagokionez; bestela ere aintzat hartzeko alderdiak, baina are gehiago egungo egoera honetan. Paperean nahiago duzuenok liburua osorik PDF fitxategian deskargatzeko aukera duzue, eta, audioak online entzun gabe, fitxategi guztiak eskuratu nahi dituzuenok xenpelar@bertsozale.eus helbidera idatzita lor ditzakezue.

Liburua bertsoaritzaren datu basean duzue, bdb.bertsozale.eus atarira sartu eta liburutegia ataleko bilatzailean Bapatean 2019 sartuta topa dezakezue; bertsoaldien audioak entzuteko lotura ere hor dago. Gainera, aurreko Bapatean antologiak ere topatuko dituzue sareko liburutegi horretan, Xenpelar

Dokumentazio Zentroak digitalizatuta baititu liburuan eta diskoan atera izan diren lehengo argitalpenok. 1988an ateratzen hasi ginenetik bertsoaldien audio guztiak topa daitezke, eta 1999tik aurrera liburuaren PDF fitxategiak ere bai. Xenpelar Dokumentazio Zentroak garaira egokitzeko eta ondarea digitalizatzeko egindako ahaleginari zor zaio hori.

### Bertso plazaren erakusleihu

Bapatean 2019 argitalpeneko hitzaurrea Aroa Arrizubieta Barredo bertsoariari idatzi du: "...Jolasa, arnasa, kalabaza, erraza... zer da bertsoa eta zer da plaza?" amaitzen du testua, eta hain zuzen, zer den bertsoa eta zer den plaza, horri erantzun nahi dio Bapatean bildumak.

Plazako jardunaren erakusleihu izan nahi du, eta horretarako jasotzen du plazak eman duenaren lagina: Bapatean 2019 lanak 55 bertso saiotatik hartutako 92 bertsoaldi jasotzen ditu, eta horien baitan topa daitezke 632 bertso transkribaturik. Gai, doinu eta ekitaldien ohiko informazio guztia ere badakar argitalpenak; eta transkripzioa ez ezik, audioan entzuteko aukera ere bai.

Bertsozalearentzako gozagarri izateaz gainera, ikertzailleentzat baliagarri ere bada Bertsozale Elkarteak Mintzola Ahozko Lantegiaren bidez gauzatutako ekoizpena, hainbat datutatik abiatuta, behaketarako eta ikerketarako aukerak ematen baititu.

Deskargatu hemen liburua eta audioak



ETXAHUN  
LEKUE ETXEBARRIA

MALEN  
AMENABAR LARRAÑAGA

Mungia, 2020-10-24

Doinua: Barrua ez det biluzten /  
(Brindo por las mujeres)

#### E. Lekue

Saio musikatu bat edo plaza librekoa frontoi bat toperaino afororik gabekoa edo txoko txikian bertso afari parekoa zalea ta bertsoa hori da gure txertoa. (bis)

#### M. Amenabar

Txapelketak sortzen deus sarri kriston anabasak baina bertsoak dira oilo ipurdi, arnasak baina bertsoak dira esperientziak, jolasak bizitza ospatzeko elkartu gaitzala plazak. (bis)



Sarean da 2019ko Bapatean bertso bilduma; baita aurreko urtekoak ere. / XDZ

## Bertsoaroa Nafarroan eta Kopla barik Bizkaian, plaza biziberritzen

**Pandemiak bertso saioak egiteko baldintzak okertu baditu ere, segurtasun neurri guztiak betez plazak eskaintzen ari da Bertsozale Elkartea.**

Urtero antolatzen dugu Nafarroan Bertsoaroa, eta aurten ere halaxe egin dugu: 30. Bertsoaroa abian da Iruñeko Udalaren eta Nafarroako Bertsozale Elkartaren eskutik. Iruñean bertsoaritzaz sustatu asmoz, zazpi emanaldi egingo dira aurten.

Emanaldi bi igaro dira jadanik, eta hurrengo azaroaren 17an izango da: *Orainmenean. Bertsolaritzaren genealogia feministak*. Azaroaren 21ean, *Bertso jasa, bat-bateko jolasa* haurrentzako tailerra izango da Mendillorriko Civivoxen, eta hilabetearen 24an, *Errimak bi oinetan* emanaldiak dantza ekarriko du Bertsoarora. Azaroaren 26an izango da azken emanaldia eta, ohi gisan, bertso jaialdi batek itxiko du zikloa.

Egitarau osoa [www.bertsozale.eus](http://www.bertsozale.eus) atarian topatuko duzue.

### Bizkaian, Kopla barik

Aitzakiarik gabe, *Kopla barik*. Txapelketa egiteko baldintzarik ez zegoela eta, lau saioko zikloa osatu dugu, bertsozaleek

eta kulturak merezi dutelako. Saio bakoitza formatu ezberdin batekoa izango da, plazaren aniztasunaren erakusgarri izateko nahiarekin.

Mungian bertso saio musikatua eta Igorren bertso trama egin dira dagoeneko. Beste saio bi geratzen dira: azaroaren 28an, Durangon, bertso sariketa; eta abenduaren 20an, Getxon, jaialdia. Saio berezia izango da azkena, Bizkaiko zortzi txapelkun batuko dira-eta oholatza berean. Sarrerak eskuragarri daude [www.bertsosarrerak.eus](http://www.bertsosarrerak.eus) atarian.

### Segurtasun neurri guztiak

Pandemiaren eragina nabarmena da saioetan eta, tokia mugatua da lurralde bietan. Unean ezarrita dauden arauak beteko dira eta, esan gabe doa, guztion osasuna bermatzeko segurtasun neurri guztiak beteko direla bietan.



Plaza biziberritzeko ekimenak sustatu ditugu Bertsozale Elkartetik / XDZ

## Martxan dugu egiturari buruzko partaidetza prozesua

**Martxoan abiatzeko zen partaidetza prozesua ere eten zuen pandemiak, eta azaroan ekingo zaio berriro dinamikari.**

Bertsozale Elkartaren egitura landu asmoz, parte-hartze moduak lantaldeetan, zuzendaritzetan eta batzar nagusietan aurkeztzen ari ginela hedatu zen COVID-19a Euskal Herrian. Hilabete gogor hauek eta gero, inoiz baino beharrezkoagoa izango da barrura begira jartzea eta gure lan prozedurak egokitzea. Horretarako, martxoan etendakoari ekin diogu berriro, eta azaroan abiatu dugu Bertsozale Elkartaren egituraren lanketarako partaidetza prozesua.

Tarte honetan ere ez gara geldirik egon, besteak beste, Ekonomia Sozial Eraldatzailearen markoan sakonago murgiltzeko pausoak ematen hasi gara-eta.

### Prozedura, zehaztuta

Bertsozale Elkartean horretarako sortutako taldeak diseinatu zuen egitekoa dugun prozesua, Farapi aholkularitzaren laguntzarekin. "Lanaren zati bat eginga daukagu, lan

guneak identifikatuta ditugulako" adierazi dute elkarteko koordinatzaileek.

"Gune bakoitzean diagnostia egitea da hurrengo lana: gune bakoitza elkartean nola kokatzen den eta nola funtzionatzen duen aztertuko dugu". Saio bakarrean egingo da hori, eta bigarren saio batean, funtzionamendu egokirako neurriak adostuko dira.

"Saioetan parte hartzeko aski izango dugu ariketa egiteko borondatea eta jarrera eraikitzailea", diote koordinatzaileek. "Dinamizatzen ariko direnek Farapik eskaintako trebakuntza jaso dute, eta prest daude erraztaile lanak egiteko".

Zenbait gune diagnostiarene faseari helduko diote datozen asteetan. Asmoa da diagnostiarene fasea urtarilaren 31a baino lehen amaitzea eta apirilaren amaieran funtzionamendu egokirako neurriak adostuta izatea.

## Bertso-eskolentzako material berria argitaratu dugu

**Karta-jolasen bilduma berria sortu dugu bertsoan trebatzeko, eta ale bana jasoko duzue bertso- eskolek opari; gehiago nahi izanez gero, eskaintza berezia izango duzue, baita Orainmenean argitalpena eskuratzeko ere.**

Bertsozale Elkarteko irakasle lantaldeak bat-batean trebatzeko karta-jolasak sortu ditu bertso-eskoletan zein ikastetxeetan erabiltzeko. Argitalpena Bertsozale Elkartaren eta Lanku Kultur Zerbitzuen eskutik dator.

Sei karta-sortarekin osatutako bilduma da. Karta-sorta bakoitza bat-bateko ariketa jakin bat lantzeko da, eta zailtasun mailaren arabera multzokatuta daude: jarritako puntuari kartan agertzen diren oinekin erantzutea, adibidez, edota errimatzen duten kartak lortzea eta haiek kopla ala bertsoa osatzea.

### Bertso-eskolek, opari

Bertsozale Elkartaren eskutik, bilduma bana jasoko duzue bertso-eskolek dohainik. Horietaz gain, ale gehiago eskuratu nahi izanez gero, bertso-eskolako partaideentzako eskaintza berezia sortu dugu: 32 euroren truke eskuratu ahal izango duzue bilduma. Horretarako [www.bertsozale.eus](http://www.bertsozale.eus) atarian dagoen eskaera orria bete behar da azaroaren 25a baino lehen.

Eskaerak urtariletik aurrera jaso ahal izango dituzue. Argibide guztiak web orrian daude.

Bertso-eskolako partaide ez zaretenontzat ere egongo da eskuratzeko aukera. Horretarako, idatzi [bertsoeskola@bertsozale.eus](mailto:bertsoeskola@bertsozale.eus) helbidera.

### Orainmenean: Bertsolaritzaren genealogia feministak

Karta-sortaz gain, Txakur Gorria sormen kolektiboak sortutako *Orainmenean: Bertsolaritzaren genealogia feministak* proiektuak eman duen argitalpena ere eskuragarri dago. Lanku Bekan saridun izan den proiektua da, eta, emanaldiaz gain, liburuxka ere argitaratu da. Liburuxka bertso-eskoletako kideok 6 euroren truke lortu ahal izango duzue lehen aipaturako eskaera orri bera beteta. Hau ere azaroaren 25a baino lehen eskatu beharko da. Bertso-eskolako kide ez zaretenok Lanku Kultur Zerbitzuen online dendan lortu ahal izango duzue, [www.lanku.eus](http://www.lanku.eus) atarian.

## Bertsolaritzari buruzko ikerketak, Mintzola Mintegian

**Azaroaren 26an izango da saioa, 17:45etik aurrera, eta streaming bidez jarraitu ahal izango da [www.mintzola.eus](http://www.mintzola.eus) atarian.**

Ahozko kultur sorkuntzaren inguruko ikerketak ezagutzeko hitzordua da UPV/EHUko Mikel Laboa Katedrak eta Mintzola Ahozko Lantegiak antolatzen dutena; eta tartean dira bertsolaritzari buruzkoak ere.

Azaroaren 26an izango da aurtengoa, 17:45etik aurrera, eta distantzia eta tokia zaindu behar diren garai honetan, streaming bidez eskainiko da saioa [www.mintzola.eus](http://www.mintzola.eus) atarian.

*Zaintzaren ekonomia eta euskal kultur sorkuntza: bi ikusezin, elkarri begira. Lehen hurbilpen baterako, bertsolaritzaren kasua aztergai ontzen ari den Maialen Akizu, Bertsolaritzaren erresistentzia funtzio belaunaldi desberdinetako bertsolari eta*

*bertsozale emakumeen ahotsetatik: ikerketa-ekintza parte hartzailea* proiektua aurkeztuko duten Ines Huarte eta Leire Amenabar, edota *Bertsolaritzaren autonomia estetiko baten bila: distorsioak eta arrasto batzuk* lanaren egilea den Kepa Matxain izango dira hizlari, besteak beste. Bertso-eskoletako kantaeraren lanketari buruz ere ariko da Maddi Soroa.

Bestalde, Pello Mari Otaño Beka eskuratu duen *Aiztondoren zirtotsa. Aiztondoko zirta tradizioa eta aplikazio didaktikoa* ikerlanari buruz ariko dira Harituz Tolosaldeko Bertsozaleen Elkarguneko Mikel Artola eta Unai Mendizabal.

Informazio gehiago, [www.mintzola.eus](http://www.mintzola.eus) atarian.



Azaroaren 26an aurkeztuko dira ahozko kultur sorkuntzaren inguruko ikerketak. / XDZ



## Puntu jarrita

OIER URREIZTI

Lehenik eta behin, Josu, ados naiz bertsu inguruneke lagunekin egoteak bertsuari lotzen zaituela diozunean. Baina gauza beste zentzura ere begira daitekeela uste dut, elkarrekin bat-batean aritzeak bertsularien arteko hurbiltasuna dakarrelako ere egin ohi dira aipatzen dituzun "bertso lagunak", ene ustez. Inprobisazioa zinez beste jardueretatik bereizten da. Egiazki zarena agerian uzten duela iruditzen zait, beharbada beti ez hain argiki, baina gaiak tratatzeko erak eta taula gainean bakoitzak izaten duen jarrerak bai uzten dutela ikusgai bertsulariaren izateko manera, ene iduriko. Horregatik, gauza gutxi kukutzen ahal dituzula egoteak bertsoarekin harreman sano bat sor dezakeela uste dut, salbuespenak salbuespen.

Nik halako lagunak baditudalako ausartzen naiz hori idaztera, eta kausalitateaz hausnartu ondotik ondorio horretara ere iritsi naizelako. Dena dela, Josu zuk utzitako puntu ahanzi gabe, harreman guzti horiek bertso eskolari esker ezagutu ditudala azpimarratu behar dut. Lehenik ikastolako, kolegioko eta lizeoko bertsu eskoletan jardun nuen bertsutan. Bertsu eskola horietara, hastapenean, bertsu maitatzeagatik bai, baina bereziki han nituen lagunekin momentu goxo bat pasatzearen joaten nintzen. Baina denbora joan arau, bertsu maitatzearen zergatia argitzen joan zitzaidan, eta iruditzen zait, hortaz gogoetatu ondotik bertsu eskola baten funtsa ere ulertzen joatearekin, bertsularitzarekin dugun lotura azkartzen eta hautsezin egiten dela. Horregatik, lizeotik ateratzerakoan, kontzientzia hori izanik eta azpimarratzekoa den Taldekako XILABAren laguntzarekin, herri inguruko beste bertsulari batzuekin bertso eskola bat hasi genuen. Orain, enetaz bertsu eskola bertso lantzeko momentua izateaz gain, tratatzen ditugun gaiez hausnartzeko momentua ere izan daiteke. Azkenik, emozioak, koadro soziala, gaiak tratatzeko manera eta beste halako plazan agertzeko eta egunerokorako ere baliagarri diren gauzak lantzeko ere interesgarria da bertsu eskola, betiere behar den urruntasunarekin.

Hori erran ondotik, lagun dudan bertsolari bati, Bixente Hirigarairi, puntu gisa amaieran aipatu gaiarekin lotura duen galdera bat luzatuko diot; Bixente, hik gaiak nola jorratzen dituk koadro sozialari begira, hire burua anitz zentsuratzen duka?

# Koplak

## Aurtengo Gabonetan ere izango da Ahots Baten

Egungo egoera tarteko, ez du egonaldi itxura izango, baina bi saio egingo ditugu. Mintzola Ahozko Lantegiak abiatu zuen ekimena 2015ean, eta ordutik hona urtero egin izan da Gabonetako oporraldiak baliatuta. Bertsolaritzaz gain, antzerkia, kantagintza eta kontalaritza edo literatura lantzen dituzte gazte sortzaileek. Laster informazio gehiago; beraz, adi ibili!

## Poto-Finixa



Joko garbia

Xenpelar Dokumentazio Zentroa. XDZ

## Euskaraldia, azaroaren 20tik aurrera

Arigunea da Bertsozale Elkartea: gure praktika eta izana euskarak ardatzen du, eta euskaratik jarduten dugu. Orain norbanakoari dagokio ahobizi edo belarriprest moduan izena ematea, eta ekimenean parte-hartzea: [www.euskaraldia.eus](http://www.euskaraldia.eus) atarian izena emanda batu zaitezke.



Eskuragari [www.lanku.eus](http://www.lanku.eus) atarian